

Euskal adjektiboen sailkapena gramatika sortzailearen ikuspegitik

Iñigo Arteatx

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM)

Laburpena

Orrialde hauetan zehar, euskarazko adjektiboen sailkapena egingo dut, haien argumentu-sarean oinarrituta, eta bereziki, menpeko egitura konplexuei erreparatuta. Berton, defendatuko dut euskarazko adjektibo gehienek argumentu bakarra hartzen dutela, tough-egiturek barne, eta abil motako zenbait adjektibo direla argumentu biko sarea izan dezaketenak. Horretarako, Stowellen (1991) sailkapena hartuko dut oinarri, eta hasieran eman dako egiturak sailkapen horretara egokituko ditut, arreta berezia eskainita abil eta erraz motako adjektiboek.

0. Sarrera*

Euskarazko adjektiboen artean, batzuek argumentu bakarrari egiten diote lekua, eta ez dute menpeko egiturarik onartzen. Beste batzuek, aldiz, aukeran dute bigarren argumentua eta beste batzuen kasuan, ezinbestekoak dira argumentu biak:

- (1) a. Jon argala da (*kantatzen).
- b. Miren argiegia da (horrelakoak sinesteko).
- c. {Liburu hori / irizpide zuzenak erabiltzea} garrantzitsua da.
- d. Gure aitona abila zen (eguraldia iragartzen).
- e. Jon erraza da *(konbentzitzen).

Ondoko ataletan, adjektiboak sailkatzeko Stowellen (1991) proposamena aztertu ondoren, eta Eguren (2007) iradokitako eredu erabilia, adjektiboen argumentu-sarean oinarritutako deskribaketa proposatuko dut.

* Ikerketa hau Ministerio de Economía y Competitividad (MINECO) delakoaren FFI2013-46907-P ikerketa-proiektuaren barruan egin da. Eskerrak eman nahi dizkiet Xabier Artiagoitiari eta Beatriz Fernándezi, egindako ohar eta iradokizunengatik. Lan honetan erabiliko ditudan laburdurak honakoak dira: A-Aditza; Adj-Adjektiboa; bet-betegarria; Dnb-Denbora; D-Determinatzailea; espez- espezifikatzailea; I-Izena; Konp-Konpementatzailea; Op-Operatzailea; Pred-Predikazioa.

1. Stowellen (1991) sailkapena

Stowellek (1991), adjektibo sintagmen argumentuak aztertzean, proposamen interesgarri bat eskaintzen digu; bertan, bestelako irizpide batzuen arabera zehaztutako hiru multzotan sailkatzen ditu adjektiboak. Lehenengo multzoan, gertaera-argumenturik onartzen ez duten adjektiboak ditugu (*tall, rich...*). Bigarren multzoan, argumentu *sentikorra* (*sentient argument*) eta gertaera-argumentua onartzen dituzten adjektiboak biltzen ditu (*clever, mean...*). Stowellek (1991: 106) MP (*mental property*) adjektiboak deritze adjektibo horiei.¹ Azkenik, argumentu sentikorra eta gertaera-argumentua har ditzaketen adjektiboak ditugu, baina ez biak aldi berean (*important...*):

- (2) a. *Touching the ceiling was tall (of John). (Stowellen (15a))
- b. Punishing the dog was clever/mean (of Bill). (Stowellen (14a))
- c. Bill was important (*to win the election).

Saia gaitezen (1) multzoko adjektiboak Stowellen sailkapenera egokitzten. Duda barik, gure lehenengo multzoak —(1a) motako adjektiboak— bat egiten du Stowellen lehenengo multzoarekin. Bigarren multzoan sailkatu dugun (1b) adibideko *argiegia* adjektiboari dagokionez, lehen begiratuan, ematen du Stowellen bigarren multzoan kokatu beharko genukeela. Hala ere, berehala antzematen dugu badirela arrazoiak pentsatzeko menpeko egitura adjunktua gisa atxikitzen zaiola egiturari, ez argumentu gisa, NZ-hitzaren ateratzea gardena ez den neurrian:

- (3) *Zer_i da Miren_i argiegia [PRO_i zer_i sinesteko]?

Halako adibideak azterketatik kanpo uzteko beste arrazoi bat izan daiteke adjektiboa bera ez dela menpeko egitura hautatzen duena, Graduatzaile kategoria funtzionala baizik (Contreras 1993: 6).² Proposamen hori berrestera dator (1a) multzoan kokatuko genukeen edozein adjektibo egokitu ahal izatea (1b) adibideko egituretara, testuinguru egokia emanez gero:

- (4) Jon argalegia da sumoan aritzeko.

¹ Hark proposatzen duen definizioaren arabera, multzo hori osatzen duten adjektiboek giza argumentua (edo argumentu sentikorra) eta perpaus argumentua (gaia) hautatzen dituzte. Ikusiko dugun legez, definizio horren barruan biltzen diren adjektiboek ez dute denek berdin jokatzen.

² Egia da (1b)koa bezalako perpausetan graduatzailea ez dela ezinbestekoa (*Miren argia da horrelakoak sinesteko*); hala ere, esanahiak bat egiten du (3) adibidekoarekin; hortik ondoriozta dezakegu posible dela aipatutako Graduatzaile Sintagmaren burua ez gauzatzea fonetikoki (grad^o = -egi, lar, sobera, Ø).

Horrek iradokitzen du (1b) adibidekoa bezalako adjektiboak (1a) adibidekoaren parekoak direla, funtsean, eta arestian aurkeztutako sailkapena birformulatzeraz behartzen gaitu, adjektibo mota biak talde bakarrean elkartuz.

Hirugarrenik, (1c) adibideko *garrantzitsu* dugu. Stowellik jarraituz, hirugarren multzoan kokatuko dugu adjektibo hau, gertaera-argumentua edo argumentu soila, bietako bat, hauta dezaketen adjektiboaren eredu gisa:³

- (5) {Jakiak ondo aurkeztea / itxura / Miren} oso garrantzitsua da.

Aurrera eginez, (1d) adibideko *abil* Stowellik bigarren taldean —MP-adjektiboaren artean— kokatu beharko genuke, giza argumentua eta gertaera-argumentua bildu baititzake aldi berean, egileak berak eskaintzen dituen adjektiboek bezala (*clever, mean, farsighted, imprudent*).

- (6) a. Jon abila/zentzuzkoa/ankerra (izan) zen txakurra zigortzen.
b. Miren abila/zuhurra/zentzugabea (izan) zen lasterketetan izena ematen.

Bestalde, eta Stowellik berak (1991: 110) zehazten duen moduan, MP-adjektiboek ezaugarri fisikoak zehazten dituztenek bezala joka dezakete; alegia, (1a) adibidekoek bezala —eta ikusi berri dugunez, *garrantzitsu* eta pareko adjektiboek bezala—. Kasu honetan ere, gertaera-argumentua edo argumentu soila hauta dezakete:⁴

- (7) a. {Jon / ebazpena / txakurra zigortzea} zentzuzkoa/ankerra izan zen.
b. {Miren / erabakia /lasterketan izena ematea} zuhurra/zentzugabea izan zen.

Nolanahi ere, hartu kontuan argumentu soila eta gertaera-argumentua, biak batera, hartzen dituztenean, argumentu soilak borondatea islatzeko gaitasuna izan behar duela —Stowellik terminologia erabilita, argumentu sentikorra izan behar duela esango dut neuk ere—:

- (8) {Jon / *tximista} beldurgarria zen zure lagunak izutzen.

³ Ikusita *itxura, ura*, etab. bezalakoak ere ager dakizkigukeela testuinguru honetan, uko egin diot *argumentu sentikorra* terminoa erabiltzeari, argitasunaren mesedetan.

⁴ Kasu honetan, gertaera-argumentuak borondatezko ekintza islatu behar du. Irizpide horretan oinarrituta, borondatea islatzen ez duten gertaera-argumentuek perpaus ezgramatikalak eratu dituzte:

- a. *[Euria egitea] zuhurra izan zen, lehorte garai hartan.
b. *[Hankaz gora erortzea] arduragabea izan zen (azken puntuazioari begira).

Laburbilduz, *alai, zahar, garai, irlandar...* bezalako adjektiboek argumentu bakarra jasotzen dute, eta ez da gertaera-argumentua izaten (argumentu soila). Aldiz, *zentzuzko, anker, zuhur...* bezalakoek argumentu soila edo gertaera-argumentua bil dezakete, eta biak batera, baldin eta argumentu soila sentikorra bada. *Abil* bezalako adjektiboak ere multzo honetan sartzen dira. *Garrantzitsua* bezalako adjektiboek ere argumentu soila edo gertaera-argumentua bil dezakete.

Argumentu-kopurua hartuta irizpide gisa, batetik, argumentu bakarra har dezaketenak ditugu; hor, *alai* motakoak eta *garrantzitsu* bezalakoak sartzen dira. Bestetik, argumentu bi izan dezaketenak ditugu; *abil* bezalakoak, hain zuzen ere. Lehenengoetan, subjektu-posizioa betetzen duen argumentua [espez pred^o] posizioan txertatzen zaio egiturari, eta adjektiboa [osag pred^o], Eguren (2007) proposatutako ereduaren bidetik:

- (9) [AS [A' [PredS DS [Pred' AdjS Pred^o]]]]

Baina zein da *abil* motako adjektiboak biltzen dituzten perpausen egitura? Kontuan izanik perpaus nagusiko subjektua eta menpekoa indizekideak direla, zertan oinarritzen da haien arteko harremana? Benetan hartzen ditu argumentu bi *abil* adjektiboak, ala argumentu bakarra (gertaera-argumentua) atxikitzen zaio egiturari, subjektu nagusia mugimendu bidez eratorriz? Eta zein da *erraz* motako adjektiboen argumentu-sarea? Nola uztartzen da argumentu-sare hori subjektu nagusiaren eta menpeko objektuaren arteko indizekidetasunarekin?

2. *Jon abila da (konbentzitzen) vs Jon erraza da *(konbentzitzen)*

Hona hemen errepikatuta (1) multzoko azken bi adibideak. *Abil* adjektiboarekin batera, *iaio, dorpe, baldar, on, txar, bizi, motel, aspergarri, nekagarri, gogaikarri, barregarri, beldurgarri, famatu...* bezalako adjektiboak sailka ditzakegu. *Erraz* bezalako adjektiboak —ingelesezko *tough* egiturei dagozkienak— dira, bestalde, arreta gehien piztu dutenak, haien egitura argitzeko helburuarekin (beste askoren artean, Lees 1960; Rosenbaum 1967; Postal & Ross 1971; Akmajian 1972; Lasnik & Fiengo 1974; D'Introno 1979, 2001; Chomsky 1981; Goenaga 1982, 1984, 1985; Contreras 1993; Kim 1995; Artiagoitia 2003; Anderson 2005; Arteatx 2011). Gutxi batzuk baino ezin dizkiegu gehitu, hala ere, Goenagak (1984, 1985) eta Artiagoitiak (2003) eginiko deskribaketetan ageri direnei (*zail, neke, gaitz, erraz*): *nekez, neketsu, arin, astun...*⁵

⁵ Badirudi *erraz* motako egituren erabilera mendebaldeko eta erdialdeko euskarara mugatzen dela (Artiagoitia 2003: 687).

- (10) a. Gure aitona abila zen (eguraldia iragartzen).
 b. Jon erraza da *(konbentzitzen).

Lehen begiratutik, alde nabarmenak antzematen ditugu, adibide bate-tik bestera. Hasteko, menpeko egituraren ezinbestekotasuna dugu *erraz* motako perpausetan, *abil* motakoetan ez bezala.⁶ Bigarren aldea perpaus nagusiko subjektuak menpeko egitura betetzen duen rolean aurkitzen dugu: *abil* bezalako adjektiboak biltzen dituzten perpausen kasuan, subjektua menpeko subjektuaren indizekidea da; *erraz* motakoak biltzen dituztenetan, subjektu nagusia menpeko objektuaren indizekidea da:⁷

- (11) a. Miren_i abila da [e_i e orrazten].
 b. *Miren_i abila da [PRO e_i orrazten].⁸
 c. *Jon_i erraza da [e_i e konbentzitzen].
 d. Jon_i erraza da [PRO e_i konbentzitzen].

Chomskyk (1970:188-189) beste bereizketa bat ere proposatzen digu: *abil* motako adjektiboekin lotutako egiturek nominalizaziorako bide ematen dute:

- (12) a. Jon abila da konbentzitzen.
 b. Jonen abilidadea konbentzitzen.

Erraz motako adjektiboekin lotzen diren egiturek, berriz, ez dute aukera hori eskaintzen; ez, behintzat, esanahia aldatu barik. Horrela, ondoko adibidean ikusten dugun *erraztasuna* izenak Jonek berak inor konbentzitzeko duen erraztasunari egiten dio erreferentzia, eta ez alderantziz:

- (13) a. Jon erraza da konbentzitzen.
 b. #Jonen erraztasuna konbentzitzen.

⁶ Egia da posible dela menpeko egiturarik gabeko *erraz* motako perpausak eraikitzea, eta hainbat egilek erabili izan dituzte halako adibideak *erraz* motako adjektiboek θ -rolak esleitzen dituztela frogatzeko (Wilder 1991; Hornstein 2001). Bestalde, halako egituretan menpeko egitura inplizitua dela defendatu izan dute zenbaitek (Kim 1995; Comrie & Matthews 1990; Hicks 2009), eta menpeko egiturarik ez agertzeko aukera isildutako eduki hori berreskuratzeko aukerarekin lotu (Comrie & Matthews 1990; Hicks 2009). Berreskuragarritasunaren auzia guztiz argia ez den arren (Arteax 2011: 172), adibideak oso mugatuak izanik, baieztatu daitezke, Hicksek (2009) bezala, menpeko egitura beharrezkoa dela.

⁷ Dena dela, bada salbuespenik; esate baterako, *astun* adjektiboak menpeko egiturako subjektuari zein objektuari egin diezaieke erreferentzia:

- a. Jon astuna da bere istorioak kontatzen. / Liburu hori astuna da irakurtzen.
 b. Mediki hori txarra da gaixotasunak sendatzen. / Gaixotasun horiek txarrak dira sendatzen.

Jokabide hori adjektiboak adiera bat baino gehiago izatearekin lot dezakegu.

⁸ PRO arbitrarioa irudikatzen, indizerik gabeko PRO erabiliko dut, Chomskyri (1981: 192) jarraituz.

Perpau nagusiko subjektuaren eta menpeko egituraren arteko harreman hori ezin da azaldu hautapen semantiko hutsean oinarrituta; beraz, ondorengo ataletan, haien egitura deskribatzen ahaleginduko naiz, eta bide batez, argitzen zein den *erraz* motako adjektiboaren lekua aurreko atalean aurkeztutako sailkapenean.

2.1. Abil motako adjektiboak

Egurenak (2007) proposatutako azterbidera itzulita, eta lehenengo atalaren amaieran aurkeztutako zalantza bati atzera helduz, badirudi aukera bi ditugula *abil* motako adjektibodun perpauak azaltzeko: bata, igoeran oinarrituta; bestea, kontrolean oinarrituta:

- (14) a. $\text{Jon}_i \text{ [}_{\text{PredS}} \text{ } \mathbf{\text{Jon}}_i \text{ [}_{\text{Pred}'} \text{ [PRO}_i \text{ e konbentzitzen] abila]]}$ da.
 b. $\text{Jon}_i \text{ [}_{\text{PredS}} \text{ } \mathbf{\text{Jon}}_i \text{ [}_{\text{Pred}'} \text{ [} \mathbf{\text{Jon}}_i \text{ e konbentzitzen] abila]]}$ da.

Baina, ondoko adibideek erakusten duten moduan, perpau nagusiko predikatzaileak murrizketak ezartzen dizkio subjektuari:

- (15) a. #Mahaia abila da (...-tzen).
 b. #Harria trebea da (...-tzen).

Murrizketa horiek argi erakusten dute argumentua perpau nagusian txertatzen dela, eta beraz, kontrolean oinarritzen dutela menpeko subjektuarekiko harremana, (14a) adibidean proposatutako bidetik. Bestalde, menpeko PRO argumentua jasotzen duen egitura minimoa Denbora Sintagma izanik (Bošković 1995, 1996, 1997; Ormazabal 1995; San Martín 2002), honela berriro dugu (14a) adibideko egitura:

- (16) $\text{Jon}_i \text{ [}_{\text{PredS}} \text{ } \mathbf{\text{Jon}}_i \text{ [}_{\text{Pred}'} \text{ [}_{\text{AdjS}} \text{ [}_{\text{Dnbs}} \text{ PRO}_i \text{ e konbentzitzen] abil] -a]]}$ da.

Egitura horietan, adjektiboak argumentu bi hartzen ditu: bata, menpeko subjektuaren aitzindaria, Predikazio Sintagmaren espezifikatzailean atxikitzen zaiona egiturari; bestea, menpeko egitura bera, AdjS-ren osagarri posizioan. Hala ere, posible da, esan dudan moduan, *abil* motako adjektiboek argumentu bakarra hartzea:

- (17) Miren abila da.


Kasu horretan, *abil* adjektiboak *alai* adjektiboaren egitura bera izango du, argumentuen kopuruaren eta banaketaren aldetik. Edonola ere, hauxe da, orain arte ikusi ditugun egituretan, argumentu bi har ditzakeen bakarra.

2.2. Erraz motako adjektiboak

Erraz motako egituretan gehien aztertu den perpaus mota (1e) adibidekoa dugu, hemen errepikatuta:

(18) Jon erraza da konbentzitzen.

Mota honetako perpausen egitura azaltzeko, arestian erabilitako Egurenen eredia Hicksen (2003, 2009) proposamenarekin uztartuko dut. Proposamen horren arabera, (18) adibideko *Jon* subjektu nagusia menpeko egitura txertatzen da, $[_{DS} [_{IS} [_{DS} \text{Jon}] \text{Op}]]$ bezalako egitura baten barruan.⁹ Ondoren, menpeko *konp*^o buruak *Op* operatzailea erakartzen du, bere tasunak asetzeko; baina erakartze-mugimendu horretan, *DS* konplexu osoa mugitzen da [espez, *konp*^o] posizioa, eta hartara, Chomskyren (2000, 2001) fasedun ereduaren bidetik, menpeko *Jon* sintagma eskuragarri dago, perpaus nagusiko [espez, *pred*^o] posizioa mugitzeko, eta handik, [espez, *dnb*^o] posizioa:



Ikus daitekeen moduan, badago subjektu bat perpaus nagusian, menpeko objektuaren indizekide dena, eta ondorioz, ezin duena kontrol-harremanik eraiki menpeko subjektuarekiko. Ildo beretik, menpeko objektuarekiko indizekidetasun horrek beharrezko egiten du menpeko egitura iragankorra izatea,

⁹ Hicksen proposamenaren eta Kaynerenaren (2002) arteko aldeei buruz, ikusi Hicks (2009: 15).

D'Intronok (1979: 137) dioen legez (interpretazio bikoitza izan dezaketen aditzen kasuan, irakurketa iragankorra baino ez da posible):

- (20) a. *Miren_i erraza da etortzen.
 b. Jon_i erraza da [PRO e_i aspertzen/nekutzen].
 c. *Jon_i erraza da [e_i aspertzen/nekutzen].

Azterbide horren arabera, lehen begiratuan argumentu biko adjektibo baten aurrean gaudela eman dezakeen arren, *erraz* motako adjektiboak argumentu bakarreko egiturak dira, *alai* bezalako adjektiboak bezala.¹⁰ Egitura hori bistakoagoa da *erraz* motako beste egitura batzuetan; horietan, perpaus nagusiak ez du ageriko subjekturik agertzen, Goenagak (1985: 511) eta Artiagoitiak (2003: 687) deskribatu izan duten moduan. Kasu honetan, menpeko egitura iragangaitza izan daiteke, Goenagak (1982: 635) nabarmendu duenez:

- (21) Zaila da hortik pasatzen.

Egia da oso antzekoak direla adibide horiek eta *-t(z)ea* nominalizazioarekin eratutakoak. Hori dela eta, arrazoizkoa litzateke pentsatzea egitura horietan *-t(z)en* morfema *-t(z)ea* morfema nominalizatailearen nolabaiteko aldaera izan daitekeela. Hala ere, *-t(z)ea* morfemadun nominalizazioetan ez bezala, *-t(z)en* morfemadun egituretan menpeko ageriko subjektuaren gaineko murrizketa daukagu; ezaugarri hori bera nahikoa dugu egitura biren aurrean gaudela esateko:

- (22) a. Zaila da {Jonek/inork} astean bost liburu irakurtzea.
 b. Zaila da (*Jonek/*inork) astean bost liburu irakurtzen.

Menpeko egituren subjektu arbitrarioa izanik, eta egitura garatuagoa dagoela iradokitzen duen beste elementurik ezean —alderatu (19)ko egiturekin—, ondoriozta dezakegu DnB dugula menpeko islapen gorena, (22b) bezalako perpausen kasuan. Perpaus nagusiko subjektu-posizioan, berriz, izenordain betegarri isila dugu, menpeko egiturekiko indizekide izango dena, eta Artiagoitiak (2001a, 2001b) *irudi* eta *eman* aditzen azterketarako proposatu izan duena jada:

- (23) [_{DnBs} pro_{bet-i...} [_{PredS} [_{DnBs} PRO hortik pasatzen]; zaila] da].

¹⁰ *Irudi* eta *eman* bezalako aditzekin osatutako perpaus kopulatiboetan ere argumentu bat baino gehiago dugula eman dezake; aditz horiek aukera ematen dute *-t(z)en* morfemadun egiturak txertatzeko, nahiz eta lehenengo multzoan sailkatutako adjektiboak izan:

(iii) Jonek sukaldaria ematen du arraina prestatzen.

Alabaina, *-t(z)en* morfemadun egitura horiek ez dira zuzenean lotzen Adjektibo Sintagmaren argumentu-sarearekin (Arteatx 2011: 130).

Antzera azal ditzakegu *bistakoa*, *agerikoa*, *ukaezina*... bezalako adjektiboak ere (nominalizazioen kasuan bezala, KonpS izanik menpeko egituraren islapen nagusia):

(24) Ukaezina da [zuek lan handia egin duzuela].

Erraz motako adjektiboetara itzulita, ondoko adibideetan ikusten den moduan, posible da indizekidetasun-harremana ezartzea menpeko subjektuaren eta perpaus nagusiko subjektuaren edota argumentu datibo baten artean (25b).¹¹ Kasu horietan, ez dagoenez menpeko objektuarekiko indizekidetasun-harremanik, litekeena da menpeko egitura iragangaitza izatea ere:

- (25) a. Zuk_i erraz duzu {[_{Dnbs} PRO_i jai hartzen]/[_{Dnbs} PRO_i hortik pasatzen]}.
- b. Zuri_i erraz zaizu {[_{Dnbs} PRO_i jai hartzen]/[_{Dnbs} PRO_i hortik pasatzen]}.

Perpaus nagusiko subjektuaren gaineko murrizketek argi erakusten dute subjektu hori perpaus nagusian atxikitzen zaiola egiturari, eta ondorioz, menpeko subjektuarekiko kontrol-harremana ezartzen duela:

(26) *Harriak zail du ...-t(z)en.

Hala ere, perpaus horietan, perpaus nagusiko subjektua ez zaio atxikitzen egiturari adjektiboaren argumentu gisa, aditz nagusiaren argumentu gisa baizik. Hortaz, perpaus horiek eskainitako datuek ez diote eragiten hemen aztergai dugun adjektiboaren argumentu-egiturari.¹² Izatez, adjektiboaren argumentu-sarean parte hartzen duen elementu bakarra *-t(z)en* morfemadun perpaus jokatu gabea da, (21) adibidean bezala.

3. Laburbilduz

Ikusitakoan oinarrituta, esan dezakegu euskarazko adjektibo gehienek argumentu bakarra har dezaketela. Horien artean ditugun argumentu soila har-

¹¹ Goenagak (1985) zalantzazkotzat jotzen du halako adibideen gramatikaltasuna; onartu beharrean nago niri neuri arrotz egiten zaizkidala datibodun adibideak, baina ergatibodunak erabat onargarriak iruditzen zaizkit.

¹² Antzeko kasua dugu perpaus nagusian argumentu datiboa edota *-rentzat* Postposizio Sintagma jasotzen dutenena. Halako adibideek ingelesez aurkitzen ditugun beste batzuen pareko ematen dute:

(iv) For Bill, this problem is too abstract to solve. (Lasnik eta Fiengo 1977:538)

tzen duten adjektiboak: *urdin*, *berri*, *zuberoar*, eta antzekoak. Horiez gain, argumentu soila edo gertaera-argumentua hartzen duten adjektiboak ere multzo honetan daude: *zentzuzko*, *anker*, *zuhur*, *ukaezin*, *bistako* bezalakoak. Azkenik, gertaera-argumentua hartzen duten adjektiboak (*erraz*, *zail*, etab.) ere talde honen parte dira. Aldiz, *abil* motako adjektiboek baino ez dute argumentu bat baino gehiago hartzeko gaitasuna.

Aipamenak

- Anderson, Deborah L. 2005. *The Acquisition of Tough-Movement in English*. doktore-tesia, Cambridgeko Unibertsitatea.
- Arteatx, Iñigo. 2011. *Euskarazko egitura jokatu-gabeak: -(z)en morfemadun perpaus osagarrien azterketa sintaktikoa*. doktore-tesia, UPV/EHU. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Inigo_Arteatx_TESIA.pdf] [Azken kontsulta: 2014-10-01].
- Artiagoitia, Xabier. 2001a. «Irudiak eta emaleak». *ASJU* XXXV-1, 29-64.
- Artiagoitia, Xabier. 2001b. «Seemingly ergative and ergatively seeming». In J. Herschensohn, E. Mallén & K. Zagona (arg.), *Features and Interfaces in Romance. Essays in honor of Heles Contreras*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 1-22.
- Artiagoitia, Xabier. 2003. «Complementation». In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 634-709.
- Bošković, Željko. 1995. «Null Case and Certain Differences between French and English». In L. Grenoble, M. Przedziecki, & L. Whaley (arg.), *Proceedings of ESCOL 13*. Ithaca: Cornell University. 13-24.
- Bošković, Željko. 1996. «Selection and the categorial status of infinitival complements». *Natural Language and Linguistic Theory* 14, 269-304.
- Bošković, Željko. 1997. *The Syntax of Nonfinite Complementation: an economy approach*. Linguistic Inquiry Monographs, 32.
- Chomsky, Noam. 1970. «Remarks on nominalization». In R.A. Jacobs & P.S. Rosenbaum (arg.), *Readings in English Transformational Grammar*. Washington: Georgetown University Press. 184-221.
- Chomsky, Noam. 1981. *Lectures on Government and Binding*. Dordrecht: Foris.
- Chomsky, Noam. 2000. «Minimalist Inquiries: The Framework». In R. Martin et al (arg.), *Step by step. Essays on Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*. Cambridge (MA): MIT Press. 89-155.
- Chomsky, Noam. 2001. «Derivation by Phase». In M. Kenstowicz (arg.), *Ken Hale. A life in language*. Cambridge (MA): MIT Press. 1-52.
- Comrie, Bernard & Stephen Matthews. 1990. «Prolegomena to a typology of tough movement». In W. Croft, K. Denning & S. Kemmer (arg.), *Studies in Typology and Diachrony for Joseph H. Greenberg*. Amsterdam: John Benjamins. 43-58.
- Contreras, Heles. 1993. «On null operator structures». *Natural Language and Linguistic Theory* 11, 1-30.
- Eguren, Luis. 2007. «Marcas de predicación en vasco». In B. Fernandez & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 233-249.

- Goenaga, Patxi. 1982. «Euskal nominalizazioari buruz zenbait ohar: “zail da”, “erraz da” predikatuen errejimena». *Euskera* 27, 623-637.
- Goenaga, Patxi. 1984. *Euskal sintaxia; konplementazioa eta nominalizazioa*. doktore tesia, UPV/EHU.
- Goenaga, Patxi. 1985. «Complementación y nominalización en euskara». *ASJU* XIX-2, 493-567.
- Hicks, Glyn. 2003. «*So Easy to Look At, So Hard to Define*»: *Tough Movement in the Minimalist Framework*. doktore-tesia, University of York. [http://eprints.soton.ac.uk/65390/1.hasCoversheetVersion/MA_Dissertation.pdf] [Azken kontsulta: 2014-10-01].
- Hicks, Glyn. 2009. «*Tough* constructions and their derivation». *Linguistic Inquiry* 40-4, 535-566.
- Hornstein, Norbert. 2001. *Move! A Minimalist Theory of Construal*. Massachusetts, Oxford: Blackwell.
- D’Introno, Francesco. 1979. *Sintaxis transformacional del español*. Madril: Cátedra.
- D’Introno, Francesco. 2001. *Sintaxis generativa del español: evolución y análisis*. Madril: Cátedra.
- Kayne, Richard S. 2002. «Pronouns and their antecedents». In S.D. Epstein & T.D. Seely (arg.), *Derivation and explanation in the minimalist program*. Oxford: Blackwell. 133-166.
- Kim, Boomee. 1995. «Predication in *Tough*-constructions». In J. Camacho, L. Choueri & M. Watanabe (arg.), *Proceedings of the Fourteenth West Coast Conference on Formal Linguistics*. 271-285.
- Lasnik, Howard & Robert Fiengo. 1974. «Complement Object Deletion». *Linguistic Inquiry* 5, 525-571.
- Lees, Robert B. 1960. «A multiply ambiguous adjectival construction in English». *Language* 36-2, 207-21.
- Ormazabal, Javier. 1995. *The syntax of complementation: On the connection between syntactic structure and selection*. doktore-tesia. Storrs: University of Connecticut.
- Postal, Paul M. & John R. Ross. 1971. «¡*Tough* Movement Si, *Tough* Deletion No!». *Linguistic Inquiry* 2, 544-546.
- Rosenbaum, Peter S. 1967. *The Grammar of English Predicate Constructions*. Cambridge (MA): MIT Press.
- San Martín, Itziar. 2002. *On subordination and the distribution of PRO*. doktore-tesia, University of Maryland.
- Stowell, Tim. 1991. «The alignment of arguments in Adjective Phrases». In S.D. Rothstein (arg.), *Syntax and Semantics* 25. 105-135.
- Wilder, Christopher. 1991. «*Tough* movement constructions». *Linguistische Berichte* 132, 115-132.